

ataria

2021-01-08 • 1.349. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus

Edorta Kortadi, artearen historiaz





10-17

AURKIBIDEA

Iritzia Garbiñe Biurrun **3**

Erreportajea Naziak Tolosan **4-7**

Asteko Gaia Edorta Kortadi
arte kritikari eta irakaslea **10-17**

Zientziaren Talaia

Josu Lopez-Gazpio **18-19**

Iritzia Aritz Peñagarikano **20**

Iritzia Irati Hartsuaga **21**

Zazpigarren Ilara

Iñigo Aranburu eta
Sambou Diaby **24-29**



24-29



21



Azaleko irudia
Jon Miranda

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabakia eta
lana eskatzen

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goizatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Txertoa pertsona guztientzat: osasunerako eskubidearen alde



**GARBIÑE BIURRUN
MANCISIDOR
EPAILEA**

COVID-19aren aurkako txerto eraginkor eta seguruen inguruan berriak ditugu. Horrek berehalako ondorioak izan ditu: burtsen igoera, euforia ekonomikoa, birusa garaitzeko baikortasun instituzionala eta herritarra -zilegiak-, eta, baita ere, hainbat Estaturen beren herritar gehienak immunizatzeko lasterketak.

Azkenean, txertaketa kanpaina hasi da. Hobeto esanda: «Hemen» hasi da, Euskal Herrian, Espainian, Europan... lehen munduan, mundu aberatsean.

Baina, zer gertatuko da munduko gainerako herrialdeetan, mundu pobreak?

Lehen aipatutako «lasterketa» horietan, Europar Batasuna eta beste hainbat herrialde oso ondo kokatuta daude -gaude-: irailerako, txertoen dosien %51 munduko biztanleriaren %13 baino ez duten herrialdeentzat ziren -gu barne, jakina-.

MOEk -Munduko Osasun Erakundeak- COVAX izeneko ekimena bultzatu du, diru publikoz, pribatuz eta filantropiaz hornitua. Ekimen honen bidez, birus honen aurkako txertoak eta tratamenduak munduko herrialde guztietan bidezko moduan eskura daitezela bermatu nahi da. Baina oraindik ez du benetan gauzatzeko inolako bermerik.

Beste ekimen batzuk ere izan dira Munduko Merkataritza Erakundeari eskatzeko COVID-19ari buruzko patenteak eta jabetza intelektualeko mekanismoak bertan behera uzteko, pandemian zehar, txertaketa horren estaldura mundu osoan zabaltzeko arte eta herritar gehienek immunitatea lortu arte. Indiak eta Hegoafrikak horixe eskatu dute, baina orain arte ezeztatu erantzuna jaso dute. Ezetza eman dutenen artean, -sorpresa ala ez?- Estatu Batuak eta Europar Batasuna -Espainiako Gobernua zentzu horretan kokaturik-.

Eta beste Gobernuen jarrera ez dut ezagutzen -Eusko Jaurlaritza, Nafarrokoa...-.

Halere, azpimarratu behar da ekimen honek -patenteak denbora baterako bertan behera uztekoak- 100 herrialderen babesa jaso duela. Itxaropenerako aurrerari nabarmena dago, HIESAren aurkako borrokan: herrialde txiroetan milioika pertsona hiltzen utzi ondoren, orain 20 urte, *DOHAko Adierazpenean*, oztopo horiek ezabatzea ahalbidetu zen, pertsona guztien osasun publikoa eta osasunerako eskubidea lehenetsiz interes komertzial eta ekonomikoen aurrean. Beste 20 urte itxaron beharko ditugu COVID-19aren kasuan?

Azkenean, txertaketa kanpaina hasi da. Hobeto esanda: «Hemen» hasi da, Euskal Herrian, Espainian, Europan... lehen munduan

Eta badaude, zorionez, beste ekimen asko «gizarte zibila»ren eta hainbat erakunderen aldetik.

Benetako istorio eder batekin bukatuko dut: Jonas SALK, 1995ean hila, poliomiELITISAREN aurkako lehen txerto eraginkorra lortu zuen biologo estatubatuarra izan zen. Telebista batean elkarrizketatu zuten eta patenteari buruz galdetu zioten. SALKek erantzun zuen: «Ez dago patenterik. Ba al dago eguzkia patentatzerik?». Hausnar dezagun: patenta al daiteke pertsonen osasuna?

Beraz, Europar Batasuneko Estatu bakoitzeko herritarro dagokigu erreklamatzeko, aipatutako ekimenean egiten den bezala, osasunerako eskubidearen aldeko jarrera zentzuzkoa eta koherentea.

NAZIAK TOLOSAN IZAN ZIRENEKOA

1940. urtetik 1944ra ohikoa izan zen soldadu naziak Euskal Herriko hainbat herritan ikustea; Tolosaren kasuan, Euskal Herria plazan zegoen presoentzako guneak garrantzi handia hartu zuen

Iñigo Terradillos Gaztañaga

Mila bederatziehun eta berrogeigarren urtea zen. Naziak Europako herrialde nagusien aurrean gailentzen ari ziren. Frantzia mendean hartu ondotik iritsi ziren alemaniarrek Euskal Herrira. Nazien esku geratu zen Ipar Euskal Herria, eta Hego Euskal Herriari dago-kionez, frankisten eta nazien arteko harreman estua-ren ondorioz, oso ohiko bilakatu zen Hitlerren milita-rreren presentzia. Batez ere, Donostian, baina, baita he-rri gehiagotan ere, Tolosan, esaterako.

Espainia frankista ofizialki neutrala bazen ere, 1940tik 1944ra bizilagun izan zituen naziekin elkarla-na etengabekoa izan zen alor guztietan. 1936ko ge-rran naziak Gipuzkoako herri batzuetan bizi zirela erakusten duten dokumentu grafikoak badira. Garai hartan, falangisten aldeko ekitaldiak egiten zituzten batez ere. Espero gabeko Frantziaren porrota eta gero, 1940. urtean alemaniarrek mugara iritsi ziren, eta soldadu naziei ongietorri beroa prestatu zieten militar frankistek eta guardia zibilek Irun-Hendaia-ko nazioarteko zubian.

Ordutik, nazien eta faxisten presentzia etengabe-koa izan zen, bi erregimenen arteko leialtasuna age-rian uzten zuten ekitaldiekin. Francok Hitlerrekin zuen harreman onak ahalbidetu zuen naziek Hego Euskal Herrian ordezkari ofizialak eta merkataritza harremanak izatea edota publizitate kanpainak egi-

tea. Donostiak berebiziko garrantzia hartu zuen, bi armadentzat leku estrategikoa baitzen. Gipuzkoako hiriburuan Division Azul delako soldaduen espedizio-ei ongietorria eman edota agurtzeko ekitaldi handiak ere egiten ziren. SSko eta Gestapoko buru Himmler berak ere 1940ko urriaren 19an Donostian geldialdia egin zuen, frankistek harrera beroa egin ziotelarik.

Harrera edo laudorio horiek, baina, ez ziren Donos-tiara mugatu. Soldadu alemaniarrek urte oso lasaiak igaro zituzten Euskal Herrian. Ipar Euskal Herriko hainbat txokotan, Biarritzen, Hendaian edota Doniba-ne Lohizunen, esaterako, argazkiak egiten egoten zi-ren. Bertako herritarrek ondo hartu zituzten, erresis-tentziarik gabe. Petainen gobernuak, inolako trabarik jarri gabe, lagundu egiten zien, herritarrek naziak la-guntzera animatuz. Errepresioa nagusi zen Hego Eus-kal Herrian ere lasaitasunez igaro zituzten egunak, Donostiaz gain, Irun, Hondarribia edota Tolosan aisiaz gozatzeko tarte hartzen zutelarik.

Tolosaren kasuan, garaiko irudiek erakusten dute pilota partidak edota zezenketak ikustera joaten zire-la, eta harrera beroak egiten zizkietela bertako agin-tari eta herritarrek. Baina, Tolosak beste ezaugarri ba-tengatik ere hartu zuen garrantzia garai horretan. Gaur egungo Euskal Herria plazara presoak bidera-tzen zituzten, Irungo mugan *kanjeak* burutzeko. Tolo-sako *Justizia* plazatik igaro ziren Irungo kontzentra-zio eremuko 47 presoren zerrendak erakusten du To-losako guneak izan zuen pisua. Azpiegitura hari



Beotibar pilotalekuaren atarian eginiko argazkiak dira goian ikusten direnak. Goiko irudian, 'Unidad' egunkaria irakurtzen, Win Brabd komandanteak gazteleraz hitz egiten zekiela erakutsiz. Kepa Ordoki Memoria Historikoa Bidasoan elkarteak esan duenez, interesgarria litzateke, bai behean agertzen diren herritarren, bai eta goian alemaniar espedizioa lagunduz agertzen den emakumearen nahiz txapeldun gaztearen izen-abizenak jakitea.

buruzko datu gehiegirik ez badago ere, uste da Tolosako erreketek zuzentzen zuela.

1944. urteko abuztuan, aliatuak Proventzara iritsi eta gero, Euskal Herriatik erretiratu ziren soldadu naziak. Alemaniara itzultzeko agindua jaso zuten, eta mugak itxi aurretik, Donostiako geltokitik Frantziara jo zuten. Azkenean, indar amerikarren aurrean amore eman zuten, eta Ipar Euskal Herriaren kasuan lau urte iraun zuen okupazioarekin amaitu zen horrela.

Informazioa bildu nahian

Kepa Ordoki. Memoria Historikoa Bidasoan elkarreak urteak daramatza memoria historikoa lantzen. Informazioa bilduz «oso gutxik hitz egiten duten» Euskal

Herriko historiaren zati bat osatzea du helburu elkarreak, ondoren herritarrei kontatua izateko. Bada, elkarrea Bidasoa ingurukoa aztertzea mugatzen bada ere, ezinbestekoa da zonaldea zabaltzea historia idazten jarraitu ahal izateko. Horrela, esaterako, ulertu daiteke Irun inguruan zeuden presoentzako guneetara Tolosako Euskal Herria plazako zentrotik nola eramaten zituzten *kanjea* egiteko helburuz.

Historia osatzen jarraitzeko askotariko informazioa (argazkia, izenak, lekukotzak...) biltzea ezinbestekoa den heinean, deialdia luzatu dute elkartetik, Tolosako *Justizia* plazako azpiegituraren inguruan edota naziek egin zituzten bisitei buruz informazio osagarria duenak euren eskura jar dezala eskatuz.



Joxe Mari Lete Unzueta

*Mendiolatik etorri
ta hemen geratu.
Familia hazi eta
koadrilla garatu.
Dena hartu serio
eta umorez hartu.
Zarenean zarela
ez gurekin ahaztu.*

Kuadrillakoak

TOLOSA, 2021eko urtarrilaren 8a

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu.
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



Vicky Lizarraga Sanz

(Adei eta Danelen ama)

*Une latz hauetan jaso ezazue gure
besarkadarik beroena*

Aralar BHI eta Aralarpean Guraso Elkartea



IKAZTEGIETA, 2021eko urtarrilaren 8a



Joxe Mari Lete Unzueta

*Zubia izan zinen,
zubitik zubira.
Ta larunbat honetan
hala izango zara.
ZUBIA*



TOLOSA, 2021eko urtarrilaren 8a



Goiko argazkian zezen plazara sartzen ari dira alemaniar soldaduak. Behean, hondar gainean omenaldia edo harrera beroa nola egi-
ten dieten ikusten da. Soinean daramatzaten jantziengatik udan daudela dirudi. Gainera, beste argazki batzuetan eguzkiagatik nola
babesten diren ere ikusten da. **ARGAZKIAK: KEPA ORDOKI. MEMORIA HISTORIKOA BIDASOAN.**



IRAGARKI LABURRAK

AURKITUTAKOA

Arrospera bidean Renault Megane baten tarjeta topatu dugu.
Ibarrako udaletxean beragatik galdetu daiteke.

OIHANA MAIALEN AMETS ANDONI ANE SUSTRAI
IGUARAN LUJANBIO ARZALLUS EGAÑA LABAKA COLINA

GAI JARTZAILEA
AMAIA AGIRRE

ATARIA BERTSO JAIALDIA 2021

URTARRILAK **16**, LARUNBATA, **18:00ETAN** TOLOSAKO LEIDOR ANTZOKIAN.

AFORO MUGATUA, 400 LAGUN. SARREREN ERRESERBARIK EZ DA ONARTUKO.
DATORREN ASTEAN INFORMAZIO GEHIAGO. INDARREAN DAUDEN OSASUN NEURRI
GUZTIAK BETETZEA BEHARREZKOA IZANGO DA.



Heron irla, paradisua

Abenduan eta gaur eguneko egoerarekin, gogoratzten naiz orain dela urte batzuk Heron irla ezagutu nuela.

Heron irla... Non dago? Ez dauka pinta txarrik ba...

Australian dago, ipar-mendebaldean.

Heron Island urpekariaren paradisua da. Arrezife Barrera Handian kokatuta dago.

Barkuan Gladstone izeneko hiritik irtenda, 15 minutura.

Kai batera iritsi eta zuzenean uharteko hondartzara jaisten zarenetik, oinetakoak kendu eta oinutsik egon zaitezke egonaldi osoan.

Ostatu bakarra dago etxetxoetan banatuta.

Egunsentian txorien soinuarekin esnatzen zara, naturaz inguraturik, eta egunsentia ikustea izugarria

da, harea zuriaren gainean eserita, itsasoaren argitasunez liluratuta.

Urpekaritzako betaurreko pare bat bakarrik behar dituzu eguna igarotzeko, eta egunero milaka arrain eta fauna ikusteak barrera arrezife honen barruan, ez dauka izenik.

Kontuz, marrazo batekin topo egin genuen!



**VERONICA BALDA, ENARA ETXEBERRIA
MYRIAM GURRUTXAGA**

«Jende arruntak egiten dituen gauza ederrak baino ez dira artelanak»

EDORTA KORTADI OLANO

ARTE KRITIKARIA ETA IRAKASLEA

Bateratsu deskubritu zituen bokazio erlijiosoa eta artearekiko zaletasuna Edorta Kortadik. Ordutik bi langintzak uztartu ditu eta artearen dibulgazioan eman ditu urterik gehienak, unibertsitatean irakasle eta hedabideetan arte kritikari. Orain, apaiz lanak egiten dituen parrokiak kokatuta dagoen elizbarrutiko museoko zuzendaria da.

Jon Miranda

Donostiako elizbarrutiko museoa zabaldu baino lehen eta 11:30ean egunero Koruko Andra Marian ematen duen mezaren aurretik zabaldu dizkio parrokiako ateak TOLOSALDEKO ATARIA-ri. Txikitako oroitzapenetatik abiatuta, Edorta Kortadi Olanok (Tolosa, 1946) artearen munduan egin duen ibilbidea marraztu du, hitzez.

Tolosan sortu zinen mundura, zein familian?

Tolosako Rondilla kalean jaio nintzen, Ezeiza gozotegiaren pareko etxean. Hamar urte bete nituen arte han bizi izan nintzen. Aitak janari denda zuen eta denetarik saltzen zuen: olioak, patatak, barazkiak, fruitak... Ama gurina eroatera etortzen zen Tolosara, aitararen dendara, bizikleta hartuta. Orduan elkar ezagutu zuten eta dantzatu zuten azken tango horretatik sortu nintzen ni. [Barrez]. Seme bakarra naiz eta esa-



2012. urtetik Koruko Andra Marian parroko eta D'Museoko zuzendari da Kortadi. J.M.

ten dutenez kostata iritsi nintzen mundura. Hori ikusita, nahiz eta umezalea izan, amari esan zioten ume gehiagorik ez ekartzeko. Nire aitaren familian, denak, merkatariak ziren eta amaren aldetik, berriz, bazeuden erlijiosoak. Altzo Azpikoak ziren hiru anaia kaputxinoak, esate baterako, nahikoa ezagunak izan dira. Monsinore Migel Angel Olano, Filipinetan ibilitakoa; Anizeto Olano *Migel Altzo* hizkuntzaren alorrean jardundakoa; eta Dionisio Olano *Diego Altzo*, irakaslea, denbora luzean Hondarribiko komentuan bizi izan zena.

Gerraosteko garaiak ziren. Tolosako zein oroitzapen gordetzen dituzu?

Tolosako giroaz ez naiz gehiegi akordatzten. Eskolapioetan ikasi nuen eta hango giroa nahikoa jatorra zen, nahikoa euskalduna. Giro lasaia zen ikastetxean zegoena, oso irakasle jatorrak izan nituen, norbere alorrean ondo jantzitakoak. Eskolapioetako jendea

beti izan dut estimu handitan. Kalean sumatzen zen kultur mugimendu bat, batez ere, erlijioaren inguruan. Gu klaretarren elizaren parean bizi ginen eta han egiten ziren ekintza batzuk. Giro hori gogoan dut, bereziki.

Euskaraz aritzen al zinen?

Garai hartan nahikoa debekatuta zegoen euskara. Irratian entzuten genuen, esate baterako, baino ia ahopeko solasa balitz bezala. Nire amaren familia euskaldun peto-petoa zen eta aitak gehiago jotzen zuen gaztelaniara, Donostian jaioa baitzen. Ni bi mundu horien artean hazi nintzen eta horregatik izan ditut beti zailtasunak euskararekin. Moldatzen naiz baina baditut nire mugak.

Txikitan utzi zenuen Tolosa. Mantendu al duzu harremana zure jaioterriarekin?

Neurri batean bai. Askotan deitu izan didate hitzaldiak emateko, Oargitik, adibidez. Oraindik badut fa-



Kortadi, Donostiako Alde Zaharrean dagoen Koruko Andra Maria elizaren portikoan. J. M.

milia, lehengusuak eta abar, baina horietako asko Ibarrara, Berastegira edo aldamenetako herrietara joan dira bizitzera. Ahal dudanean bisitatzen ditut.

Tolosan sortu zitzaizun arte eta kulturarekiko zale-tasuna?

Beranduago izan zela esango nuke. 1953ko Tolosako uholdeek triskantza handi xamarra eragin zuten. Nire aitonaren eta aitaren denda hankaz gora geratu zen.

ASTEKO GAIA

Donostiara bizitzera etorri ziren gurasoak eta aitak beste bazkide batekin burdindegi bat zabaldu zuen hemen. Orduan, salearrenean hasi nintzen eskolan, eta giro horretan, San Bizenteko parrokiari ezagutu nuen Gelasio Aranburu apaiz andoaindarra. Musikari ona zen. Bere eskutik hasi ginen koruan kantatzen, *Sine Nómine* deitzen zitzaion abesbatzan, eta sona handia izan genuen. Garai horretan bidaiak egiten genituen eskolarekin eta Nafarroako erromanikoa ezagutu genuen. Arte munduan, arkitekturaren eza-gutzan lehenengo pausoak emateko balio izan zigun horrek. Hor piztu zitzaidan arra.

Non egin zenituen apaiz ikasketak?

Donostiako seminarioan eta Saturrararen egin nituen ikasketak. Juan Mari Lekuona ezagutu nuen eta baita haren osaba Manuel. Ezaguera horrek beste alor batzuetan sartzeko balio izan zidan, batez ere, historia eta arte kritikaren munduan. Saturrararen, gogoan dut oso giro ederra zegoela. Ondarroa eta Mutriku arteko paraje horretan neguak zoragarriak izaten ziren eta hartu-eman estua izan genuen naturarekin. Pablo Areso, Jose Maria Zunzunegi, Ignacio Altuna edota gero Tolosan apaiz ibilitako Jose Antonio Etchezarreta izan nituen irakasle. Apaiztegi oso giro alaia zegoen, baina frankismo garaia zen eta organistak, adibidez, aldezturik jakinarazi behar izaten zuten mezetan zein kantu kantatuko ziren euskaraz, eta zeintzuk erdaraz. Kontrol ideologiko bat bazegoen. Euskara herri txikietako seminaristek erabiltzen zuten gehienbat, hirietatik gentozenok gehiago erabiltzen genuen gaztelania; hortaz, gero-berreskuratu behar izan dugu euskara.

Ordurako zure lantxoak eginak zenituen, ilustratzaile eta diseinatzaile bezala. Zein zen zure kezka garai horretan?

Apaiztu aurretik parte hartu nuen taldetxo batean. Donostiako kaputxinoen elizaren behealdean biltzen ginen eta Gurutz Ansola, Francisco Garmendia edota Ramon Labaien bezalako jendea biltzen zen bertara; soziologo eta euskaltzale jendea zen. Gure borondatea zen euskal kultura bultzatzea, Francoren garai horietan ia ez baitzuen presentziarik kalean. Gai horien inguruan aritzen ginen, eta bide batez, euskaraz trebatzen ginen.

1971n apaiztu eta gotzaindegiak erabaki zuen zu Bartzelonara bidaltzea Filosofia eta Letrak ikastera, Artearen Historia espezialitatean. Zergatik?

Ikusi zuten apaizgaia izan nintzen garaian urte pare bat pasatu nituela Graficas Valverde izeneko enpresan lanean. Antxon Valverderen aita, Antonio Valverderena zen inprenta handi hura eta Grosen zegoen. Ia 500 langile aritzen ziren han eta bazegoen marrazkilari tailer bat. Han aritu ziren, esate baterako, Jose Luis Zumeta, Felix Garrido, Juan Torregarai edota Antonio Salvador. Hor marrazkigintzan hasteko aukera izan nuen eta *Zeruko Argia*-n txiste batzuk egiten hasi nintzen, erlijioaren ikuspuntutik, batzuen ustez, behintzat, probokatzaileak zirenak. Azal batzuk ere egin nituen gerora. Juan Mari Lekuonaren *Muga beroak* antologia poetikoarena egin nuen eta umeentzako ilustrazioak egin nituen: Jesus Gaztañagaren *Poxpolina* eta Anjel Lertxundiren *Txiribibonbon* liburuentzat marrazkiak egin nituen. Gerora, afizioz aritu naiz, gehienbat niretzako jardun dut sortzen, maila apalagoan. Adibidez, Añorgan egon naizen urteetan Amasorrain ikastolarentzat egin izan ditut kartelak.

Bartzelonako Unibertsitate Zentralean egin zenituen ikasketak. Zenbateraino izan zen hura esperimentzia aberasgarria?

Oso esperientzia ona izan zen. Benetan jarrera irekia eta zabala topatu nuen eta niregan arrasto sakona utzi zuen. Alemaniara joateko aukera izan nuen, han baitzeuden Joseba Arregi, Paco Garmendia, Jesus Maria Mujika, Lontxo Oiarzabal eta Joxe Azurmendi. Beste aukera Bartzelonara joatea zen. Han, unibertsitatean, artearen historia estrukturalismoaren ikuspegitik aztertzen hasiak ziren irakasleak zebiltzan. Oso interesagarria egiten zitzaidan hori.

Bete-beteen asmatu nuen. Momentu hartan Francoren aurka zeuden artista gehienak, eta ondorioz, ez zuten erakusketarik egiten Madrilén. Ez Picassok, ez Dalik, ezta Joan Mirók ere. Denak Bartzelonan erakusten zituzten lanak. Beraz, nik bertatik bertara horrelako jendearekin egoteko aukera izan nuen eta haien lana gertutik

«Bartzelonan ikusi nuen, askotan, objektu fisikorik gabeko artea sortu zitekeela»

ezagutzekoa. Eduardo Txillida ere joaten zen hemen-dik erakusketak antolatzen Bartzelonara. Ni bila joan gabe, giro guzti hori topatu nuen han. Pribilegioa izan zen.

Zertan aldatu zitzaizun artearekiko ikuspegia?

Adibide bat jarriko dizut. Ni Bartzelonara iritsi eta urtebetera Rambletako arte galeria entzutetsu batean erakusketa bat muntatu zuten egiazko zaldiek. *Beautiful people* guztia hantxe ikusi nuen, euren xanpain kopak eskutan zituztela, animalia haiek lastoan jaian eta euren beharrak egiten zituzten bitartean. Muntai horretan zaldi lasterketetan lehen tokian ailegatzeko korri egiten duten zaldi horiekin alderatzen zituzten artistak, arrakasta eskuratzeko lehian. Nire ordura arteko pentsamolde guztia goitik behera etorri zitzaidan. Kontzeptuak ere arterako motibo izan daitezkeela deskubritu nuen. Ikusi nuen kontzeptu eta ideiekin jokatu zitekeela eta askotan objektu fisikorik gabeko artea sortu zitekeela. Teorizazio handiko lanak ziren. Gauza horiek orain datoz hona baina guk dagoeneko ezagutu genituen 70eko hamarkada hasieran.

Hemen, Euskal Herrian arte munduan emana zen, ordurako, aldaketa.

Bai. Nik Jorge Oteiza ezagutzen nuen. Juan Mari Lekuonaren bidez haren etxera joaten ginen artean interesa genuen zenbait apaizgai. Bisita horietan parte hartzen zuten, adibidez, Enrike Aierbek, Jose Luis Gerrak edota Anjel Lertxundik. Oteizaren mundua ezagutzen genuen eta guretzako aurkikuntza handia izan zen momentu horretan.

70eko hamarkada bukaera eta 80ko hamarkada hasieran hainbat liburu kaleratu zenituen arteaz.

Nire lehendabiziko liburua Ereinen euskaraz argitaratu genuena 1979koa da, *Artegin-tza, artista, gizartea* izenburua zera-mana. Hausnarketa soziologiko bat zen eta Durangoko Azokan saria eman zioten. Biografia eta artisten interpretazio eginez monografikoak atera ditut bai Oteiza, Txillida edota Goenagaren inguruan. Nire obsesioa, hala ere, euskal artearen panorama zabala finkatzea izan zen. Arki-

tekturan, pinturan edota eskulturan Erdi Arotik hona tradizio bat egon da Euskal Herrian. Atlas geografiko-historikoak atera genituen, garai bakoitzean zein autore egon ziren azalduz eta zein ekarpen egin zuten adieraziz. Arlo horretan saiatu naiz apur bat.

Hainbat argitaletxe sortzeko lanean ere jardun duzu?

Bai, ahalegindu gara horretan ere. Apaiztegia nengoenen harremana izan nuen argitaletxe batzuekin, adibidez, Itxaropena edo Izarra izenekoekin. Etor, Gero eta Erein argitaletxeen sorreran parte hartu nuen urte haietan.

RSVAP-eko kide, Jose Migel Barandiaran fundazio-koa, Eusko Ikaskuntzako idazkari nagusi izan zinen... Nondik ateratzen zenuen hainbeste denbora?

Ez pentsa. Urte asko daramatzagu borroka honetan eta gauza asko direla dirudi, baina bata bestearen segidan datoz denak. Garai batean euskal kultura ez zegoen ondo ikusia eta onarpen handiegirik ez zuen. Aukera ikusi nuen erakunde horietan parte hartuz bestelako ikuspegi baten alde egiteko. Eskultore eta pintoreen lanak sartzen genituen argitaletxeek kale-ratzen zituzten liburuen azaletan. Txillida, Oteiza, Basterretxea, Mendiburu eta Sistiagaren lanak erabiltzen genituen liburuen azalak egiteko. Euskal munda, ordura arte, baserriko munduarekin lotuta zegoen. Nire helburua zen Atxagak erabiltzen duen hiria-
ren kontzeptua ekartzea eta ikusmoldea zabaltzea. Estetika eta iruditeria berritzeko eginkizun horretan iruditzen zait nire hondar aletxoa jarri nuela.

Kataluniatik itzulita, Añorga Txikiko parroko izendatu zintuzten eta 28 urte eman dituzu han.

Bai. Han nire aurretik aritu zen Joxe Mari Aranalde gazteluarra eta literaturan maisu izan nuen. Osaba zuen Orixe eta bere eskoletan Aranaldek hari buruz hitz egiten zigun, baina baita Gabriel Arestiri buruz ere. Mundu berriak ezagutu genituen bere eskutik. Euskaldunak eta modernoak izan gintezkeela ikasi genuen. Hasi ginen Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola eta Bernardo Atxagaren liburuak leitzen.

«Estetika eta iruditeria berritzeko zeregin horretan iruditzen zait nire hondar aletxoa jarri nuela»



Multzo hori bera zebilen garai hartan *Zeruko Argia* aldizkarian eta orduan idatzi nituen nire lehen arte kritikak, nola hala eta nire euskara xumearekin. Tolosako

parroko izandako Jesus Mari Arrietak zuzendu izan dizkit testuak eta euskaraz emandako zenbait itzulpenetan lagundu.

Añorga Txikitik nora aldatu zinen?

Ia erretiroa hartuko nuela uste nuen garaian Añorga Txikitik Maria Erreginaren parrokiara ekarri ninduten, Egia auzora. Zortzi bat urte pasa nituen eta handik Koruko Andra Maria-



Artearen irakaskuntzan, erakusketen antolaketan eta arte kritikari gisa jardun du Kortadik urteotan. **J. M.**

ren parrokiaren ardura hartzera pasa nintzen 2012an. Dena den nire ibilbidea ez da oso pastoralak izan, beti aritu naiz artearen, museoen eta irakaskuntzaren munduan murgilduta.

Zure jardun profesionalaren zati handi bat irakasle bezala eman duzu, beraz.

Bai. Bartzelonatik itzuli nintzenean 1977an, San Bartolome ikastetxean klaseak eman nituen. Gero Juan Plazaola doktorea jesuiten probintzial egin zutenean Deustuko unibertsitatean zuen plaza utzi behar izan zuen

«Ongi dago arkitektura zibila mantentzea, baina ondare erlijiosoa ahaztu gabe»

eta ni sartu nintzen bere ordean, Artearen Historia eta Museologia irakatsi ditut urteetan, erretiroa hartu dudana arte.

Gustukoa izan duzu lan hori?

Bai. Denetarikoa esperientziak izan ditugu, baina, oro har, onak. Jendeak pentsatzen du artea gauza berezia dela, baina jende arruntak egiten dituen gauza ederrak baino ez dira artelanak. Beraz, jakin-min eta egarri horrekin gerturatzen dira ikasle asko. Gaur egun lanpostu berezietan aritzen den jende asko pasa da nire eskoleetatik. Izan dira, dena den, plan eta metodologia berriak txertatzerako garaian tentsio batzuk. Bai irakasle onaldetik eta baita ikasle onaldetik hausturak eman dira zenbait momentutan, itxurakeria batzuk sumatu ditut. Une batzuetan egon dira kudeatzen errazak izan ez diren gaiak.

Unibertsitatean erretiroa hartuta zaude, baina jarraitzen al duzu irakasten?

Bai, Pio XII. Institutuan, elizbarrutiko ikastetxean ematen ditut klaseak, artearen historiaren inguruan.

2012tik zara Donostiako Koruko Andre Mariaren parrokiako arduradun. Nola egin zizuten proposamena?

Gotzaindegitik hots egin zidatenean ez nekien zeintzuk ziren asmo zehatzak. Gerora etorri zen elizbarrutiko museoa hemen kokatzeko proiektua. Aurkeztu zidatenean zalantza gutxi izan nuen eta buru-belarri ekin nion egitasmoa gauzatzeari. 2015ean inauguratu genuen museoa eta bertan zuzendari bezala dihardut.

Ordutik, D'Museo deitzen diozue.

Bai. Ordura arte, elizbarrutiko museoak Amarako parrokian zegoen, baina bisitariak jasotzeko nahikoa aparte geratzen zen. Gotzaindegian bazegoen go-goa museoak Donostiako erdigunera ekartzeko. Koruko Andre Mariaren basilika honetan lekutu eta Santa Marta izeneko nabea baliatu genuen horretarako. Rafael Moneori deitu genion, Iesu eliza egin zuelako Loiolako Erriberan eta bagenielako aproposa izan zitekeela lan horretarako. Milioi eta erdi euroko inbertsio bat egin zen museoak egokitzeko eta oso kontentu gaude emaitzarekin. Irudi luke Moneok ez duela ezer ukitu, baina, aldi berean, ezin hobeto asmatu du. Hori onak diren arkitektoekin pasatzen da. Pozik gaude bisitari asko pasatzen delako bertatik. Hemen badago lerro moduko bat, San Telmo museoak, Elizbarrutiko museoak, Itsas museoak eta Aquariumak osatzen dutena. Aurtengo urte berezi hau alde batera utzita, aurreko lautan urtero 50.000 lagun pasa izan dira elizbarrutiko museotik.

Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian jardun duzu aholkulari bezala ondarearen alorrean. Zure ustez gaur egun erakundeek badute ardura ondarea zaintzeko?

Erakundeen aldetik garai ezberdinak bizi izan ditugu. Ezker abertzalea aldundian eta beste erakundeetan egon zen garaian ondare erlijiosoa zaintzeko laguntzak moztu egin zitzaizkigun. Haiek argudiatzen zuten proiektu sozialagoak laguntzen zituztela eta ez ondarearekin zerikusia zutenak. Elizak eta artelanak mantentzeko laguntzak ematen hasi zaizkigu berriro, adibidez, Koruko Andre Mari parrokiko organoa berritzeko edo Artzain Onaren katedraleko dorrea konpontzeko. Jendea jabetu behar da ondare hori guztia ez dela bakarrik elizara etortzen direnentzako. Artearen historian ardura orain arte elizaren-

gan egon da eta gizarte zibilak konturatu behar du berak ere baduela erantzukizun bat. Lankidetzan aritu behar dugu. Ondo dago errotak eta baserriak berreskuratzea eta arkitektura zibila mantentzea, baina ondare erlijiosoa baztertu gabe. Bestela hankaz gora joango zaigu guztia. Gaur egun, elizbarrutiko Obrak sailean nago, ondarearen berrikuntzak egiten diren bakoitzean proiektua gure eskutatik pasatzen da azter dezagun.

Gaur egun, kritikak idazten jarraitzen duzu komunikabideetan?

Bai. Une honetan *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian hamabostean behin nire arte kritika publikatzen dut. Interesgarria da eguneroko martxa jarraitu ahal izatea. Artistak ez dira zirkuko tximuak, gauza oso arraro eta bereziak egiten dituztenak eguneroko gauzak beste begirada batekin ematen dituzten pertsonak dira. Iruditzen zait arte mundua herritarrengana hurbiltzeko zeregina badutela hedabideek; egiten dituzten artelanak erakutsi eta erabiltzen dituzten prozesuak azaltzea da egin dezakegun ekarpena.

Esan ohi da sortzaile trebeak ez direnek hautatzen dutela kritikaren bidea. Ados zaude?

Ez erabat. Ni teoria mailan sakontzen hasi nintzenen erabaki nuen alde batera uztea sorkuntza. Iruditu zitzaidan ez zela oso egokia ni estilo jakin bat lantzen aritu eta beste estiloak kritikatzeko. Hala ere, ez dut uste derrigor kritikariak sorkuntza alde batera utzi behar duenik. Godard edo Truffaut bezalako maila handiko zinemagileak, gero, kritiko bezala aritu dira, bikain gainera.

Gaur egun egiten diren sorkuntza lanei begirata, zerk ematen dizu arreta?

Euskal arteak ibilbide luzea du. Berpizkunde garaian hemen eskola bat egon zen oso garrantzitsua, batez ere, eskultura mailan. Barroko garaian Euskal Herrian gainbehera bat egon zen eta kanpo-





tik etorritako autoreak nagusitu ziren. Pintura XIX. mendean loratu zen gehienbat baina leherketa, XX. mendean etorri da. Bi autore izan dira, Oteiza eta Txillida, nazioartean oso ongi mugitu direnak. Baina beraien inguruan sortu zen Gaur eskolakoak edota Rafa Balerdi nabarmenduko nituzke, baita ere. Txomin Badiola eta Pello Irazuren lanak, gaur egun, interes handiarekin jarraitzen ditut.

Nagore Amenabarro amezketarrak, adibidez, oso gauza bereziak egiten ditu eta egunotan San Telmo museoan du erakusketa zabalik. Txertatzen ditu bere lanak Euskal Herriko nahiz nazioarteko abangoardian. Garai emankorra dela uste dut eta Tabakalera bezalako erakundeetatik pasatzen ari diren gazte askoren emaitzak ikusiko ditugu hemendik hamar urtera. Sorkuntza oso prozesu barnerakoi eta indibidua-


«Sorkuntza oso prozesu barnerakoi eta indibidualista da. Nahiz eta giroak eta eskolak egon estudioan bakarrik egiten du lana»

lista da. Nahiz eta giroak eta eskolak egon, azkenean sortzaileak estudioan bakarrik egiten du lana, jaiotzen garen bezala hiltzen garela esaten dute, bada sortzaileek ere sortu berdintsu egiten dute. Sortu eta gizartera eman.

Indar kolektiborik ez duzu ikusten arte munduan?

Garai bateko auzolanaren itzala oraindik ere sumatzen da, batez ere,

adin batetik aurrerako artistengan. Gazteagoengan jarrera indibidualistagoak sumatzen ditut. Gero, esan beharra dago, aurrerapen handia egin dugula EHUK Arte Ederretako adarra sortu zuenez geroztik. Alde horretatik, iruditzen zait emakumeen presentzia are agotu egingo dela hurrengo urteetan. XX. mendean Mari Paz Jimenez, Menchu Gal edota Irene Laffitte kenduta, artean ez dira emakumeak existitu.



JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN DOKTOREA
ETA ZIENTZIA
DIBULGATZAILEA

Zientziaren urtea

Dagoeneko 2021. urteari hasiera eman diogu eta atzean utzi berri

dugun urteari agur esan diogu. Urte gogorra izan da, urte latza eta desberdina, espero dezagun horrelakorik inoiz ez errepikatzea. Hala ere, oraindik erronka handiak ditugu aurtengorako. 2020an inoiz baino presenteago egon dira zientziarekin lotutako albisteak eta ziur 2021ean ere horrela izango dela.

Garai oparoetan zientzia baztertu egin izan da beharrezkoak diren diru-ekarpenak egin gabe eta, gero, larrialdi garaietan ez dago egitura nahikorik arazoei aurre egin ahal izateko. Txertoen kasuan nahiko argi ikusi dugu. Aurten *Zientziaren Talai* behin baino gehiagotan iritsi da gaia eta zientziak bere denbora behar duela esan genuen. 2020ak erakutsi digu zientzian dagoela irtenbidea eta baita gure galdera askoren erantzuna. Gero eta gehiago dakigu COVID-19ari buruz, geroz eta modu eraginkorragoan dakigu gaixotasunari aurre egiten, eta geroz eta alternatiba gehiago ditugu birusari aurre egiteko.

Hala eta guztiz ere, udazkenean maskararen erabileraren aurkako ahotsak egon ziren bezala, aurten

txertoen aurkakoak ere entzungo ditugu, ziur. Bartzuk ez dute inoiz ikasten eta maskarek esker lortu duguna ikusi arren, txertoen aurka ere agertuko dira. Txertaketa kanpaina izugarri baten atarian gaude, ziur aski, historia guztian zehar egin ez dena. Argi dago albo ondorioak agertuko direla, edozein sendagaik sortzen ditu, baina, ez dezagun ahaztu, arren, albo ondorio horien alternatiba zein den: heriotza. Txertoen aurkako mugimenduak ez dira oraingoak, *Zientziaren Talai*an bertan 2017an idatzi nuen horri buruz *Ezjakintasunaren izurritea* izenekoan. Orduan esandakoak gaur ere balio du eta inoiz baino gaurkotasun handiagoa du ekarpen horrek. Azaldu nuenez, zientzialariok ere akatsak egiten ditugu, noski, eta badugu lana gizarteari azalpenak ematen. Ziur zientzialariok ez dugula jakin kultura

zientifikoren aldeko lana ondo egiten txertoen aurkako argudioek bizirik jarraitzen badute.

Argi dago zientzian jarritako konfiantzak mugak dituela, pertsonak gara, gure beldur eta usteekin. Guztiok ditugu, horren kontziente izan ala ez, ebidentzia zientifikoa oinarritzen ez diren usteak eta guztiok ditugu zalantzak. Txertoek ere zalantzak sortzaketeta egia da foku guztiak

Argi dago albo ondorioak agertuko direla, edozein sendagaik sortzen ditu, baina, ez dezagun ahaztu, arren, albo ondorio horien alternatiba zein den: heriotza.



txertoen garapenean jarrita egote horrek ez duela beti ondo egin. Edozein arazo gertatzen zenean albistegi guztien sarrera hori izaten zen. Hori ez da kezkatzekoa: ikerketa-prozesua ondo egiten ari direla esan nahi du. Eskala handiko txertaketa hasten denean ere, ziur albiste txar solteren bat ere egongo dela, baina, ezin dugu ikuspegi globala galdu.

Horrexegatik, aurten ere zientzia inoiz baino presenteago izango dugu. Historian inoiz egin ez dena egingo dugu eta pandemiaren amaiera ikusten hasiko gara, ziurrenik. Txertoei esker izango da, jakina, guztiok egin dugun esfortzu indibiduala ahaztu gabe. Azken hori txer-

Guztion alearekin, zientziari esker pandemiari aurre egiteko gai izan ginen urtea izango da. Etorkizunean horrela gogoratuko dugu 2021a.

toa baino eraginkorragoa izan da, ziur. Hau iragarpen gisa idazten dut, baina, ziurrenik urtarrilean zehar Eguberrien ondorio latzak ikusiko ditugu. Ea oker nagoen. Hala ere, ez gaitezen hasi orain polizia-lanak

egiten eta begiratu dezagun aurrera. Txertoa iristen zaigun bitartean joka dezagun zentzuz, txertoen inguruan zalantzak dituztenei saia gaitezen kalteak eta onurak argitasunez azaltzen eta ekin diezaiogun 2021ari. Guztion aletxoarekin, zientziari esker pandemiari aurre egiteko gai izan ginen urtea izango da. Etorkizunean ziur horrela gogoratuko dugula 2021a.

Kaixo, Txistuleitor jauna (V)



**ARITZ
PEÑAGARIKANO
IRAZUSTA
HITZALPETIK**

Aspaldiko! Zer moduz? Gogoratzzen zara nitaz, ezta? Udane naiz! Eguberrietan egindakoa kontatzeko agindu digu anderreño Elixabetek, eta, bide batez,

zuri idaztea bururatu zait. Ongi igaro dituzu Gabonak? Guk zorrotz bete ditugu zuk agindutako neurriak. Eguberri hauetan aitatxorekin, amaxorekin eta anaiarekin bakarrik jan dut.

Gabonetako oporrak hartu aurretik, Riyadhhek esan zidan Olentzero eta Mari Domingi gurasoak zirela, ez direla benetakoak. Riyadhhen etxera ez dira joaten, askotan gelan gaizki portatzen delako, baina nik uste dut inbidiagatik esaten zuela. Gure etxera Olentzero eta Mari Domingi etorri ziren. Baimen berezi bat emango zenien, ezta? Bestela, 00:30erako ezingo zizutuzten opari guztiak banatu. Niri atrila ekarri didate, txistuaren partiturak ipintzeko. Zuri eskatutakoa ekarri dizute? Anaiak esaten du urtero trena eskatzen diezula.

Erregeak ez dira gure etxera etortzen. Aitatxok esaten du erregeek guri ez digutela ezer ekarriko, horretarako, oso lagun-mina izan behar omen da. Datozen Eguberrietarako, aitatxorentzat zulo askodun gerriko bat eskatu nahi diet. Beti esaten du, opor luze-luzeetan dagoenetik, gerrikoa estutu behar dugula. Erosketak egitera joaten garen bakoitzean esaten dio amaxori. Amaxorentzat, badaezpada, ileorde bat eskatuko diet. Amaxori, ile-apaindegia itxi

Niri atrila ekarri didate, txistuaren partiturak ipintzeko. Zuri eskatutakoa ekarri dizute? Anaiak esaten du urtero trena eskatzen diezula.

zuenetik, ilea erori zaio. Baina egun batean, Txinako emakumea agertu zen, zure gelakoa, eta harrezkero, jende asko joaten da ile-apaindegira. Orain ez du ile-orderik behar, baina eskatu gabe ere ez dute ekarriko, ezta?

Dena den, nori idatzi behar nioke? Niri Baltasar gustatzen zait, baina, anaiak esaten dit opari gehien Juankar izenekoak egin ohi dituela, eta gainera, orain beraiekin batera bizi dela, han urruti, basamortuan. Datorren urterako Juankarri idazten badiot, nahi al duzu zuretzat trena eskatzea?

Gabonetan, Herniorako bidea ikasi nuen, eta libre zaudenean, joan gaitezke. Badakit mendira joatea asko gustatzen zaizula. Txistua eramango dut eta Lixue eta Riyadhhi esango diet, gurekin etor daitezen. Zuk esaiezu txinatar emakumeari eta Santurtxiko soinujoleari, ados? Badakit zuen gelan asko zaretela, baina ezingo gara sei lagun baino gehiago elkartu.

Tira, besterik ez, Txistuleitor jauna, idatzi ahal duzunean. Zaindu eta hurren arte!

Udane



**IRATI
HARTSUAGA
ITZULTZAILEA**

Ezin tentazioari eutsi... Eskatzen dizutenean idatz dezazula artikulatu bat abenduaren 28rako ba... Urtearen errepasoa egin behar, ezinbestean.

Urtea ondo-edo hasi genuen. Ez, behintzat, joan den bezala, arraro. Kanpikadak entzun ondorenetik, denbora betiko moduan zihuan aurrera, bere tik-tak hotsarekin. Etengabeko segundoen murmurioa, denboraren joanaren ezau-garri. Zorigaiztoko koronabirusa anekdota bat baino ez albistegietan. Betiko martxan. Ordea, gaitza iritsi zen guganaino ere, eta berarekin ekarri zituen beldu-

Klisk!

Klisk! Lehen ekitaldiak ekainera arte atzeratzean. Klisk! Bideo-dei bidezko lehen lagunarteetan. Klisk! Erosketen aitzakian egindako lehen paseoetan. Klisk! Atzeratutako ekitaldiak bertan behera uztean. Klisk! Eguneroko txalo eta musika saioetan. Klisk! Ilunabarretako ibilaldietan. Klisk! Pixkanaka berriz kalea geureganatzean. Klisk! Sanjoanetarako prestakuntzen inguruko eztabaidetan (baina noiz iritsi da ba, ekaina?). Klisk! Teilatutik Izaskungo San Joan bezperako suari. Klisk! Egun seinالاتu bat iritsi eta, ospakizun faltan, denbora badoala ohartzean. Klisk! Uda amaieran, ikasturte hasieran. Klisk! Berriz tabernak ixtean. Klisk! Entseatzeko debekuatik bandak bakarrik eman ahal izan zuen San-

Esango dizuet zein den urteko azken argazkia. Klisk! Aralar elurtuta. Gabonak pasatzeko baserrian auto-konfinatzea erabaki izanak agertokia aldatu baitit. Datorren urtearen erakusgarri ote?

rra, ustezko egia eta gezurrak, gaixoak, musukoak... eta martxoaren 14a. Itxialdia.

Klisk! Orduantxe atera nuen itxialdiko lehen argazkia, eta geroztik, argazkitan bezala joan zait urtea. Segundoen murmurioa izoztu balitz bezala, kliskadek hartu zuten tik-tak hotsaren lekua. Baina argazki horiek momentu izoztuak dira, non denboraren joan-zentzua galtzen duen.

ta Zeziliako kontzertuan. Klisk! Inoizko Gabon afaririk arraroenean.

Esango dizuet zein den urteko azken argazkia. Klisk! Aralar elurtua. Gabonak pasatzeko baserrian auto-konfinatzea erabaki izanak agertokia aldatu baitit. Datorren urtearen erakusgarri ote? Aldatuko al da agertokia hemendik aurrera? Urtuko al da denboraren joan izoztua, Aralarko elurren antzera?

HEMEN ZURE IRAGARKIA JOAN DAITEKE

publi@ataria.eus
661 678 818



Nafarroa etorb.
13 behea. TOLOSA
670 417 922
943 65 0313

Hemen
eta online

iragarki
laburrak
.eus



AGENDA

OSTIRALA URTARRILAK 8

IBARRA ERAKUSKETA

Galtzakomik-era aurkeztutako lanak ikusgai, kultur etxean.

TOLOSA GURE ZIRKUA

19:00. Gure Zirkua ikuskizun berria. San Esteban auzoan.

ARTE AZOKA

Arte Azoka 3 tabernan. Naiara Delgado, Idoia Elozegi, Txitxi Orbegozo, Joseba Mercader, Nerea Linazasoro, Miren Gonzalez, Oihana Ugarte, Alberto Letamendi, Miren Atxega, Arantza Munita eta Lamberto Perurena.

ZIZURKIL TAILERRA

17:30. Linterna magikoa egiten ikasteko tailerra. Plaza mugatuak. Plazida Otaño liburutegian.

LARUNBATA URTARRILAK 9

TOLOSALDEA MOBILIZAZIOAK

Sarek deiturik, *Bidea gara* mobilizazioak herriz herri.

Alegia. 17:30. Zubi zaharretik be-
rrira.

Altzo. 17:30. Herriko plazan.

Amezketeta. 16:00. Udaletxe plazan.

Anoeta. 17:30. Herriko plazan.

Berastegi. 17:30. Herriko plazan.

Bidania-Goiatz. 17:30. Bidaniko
frontoi parean.

Gaztelu. 12:30. Herriko plazan.

Ibarra. 17:30. Herriko plazan.

Ikaztegieta. 17:30. Zubian.

Irura. 17:30. San Migel plazan.

Leaburu-Txarama. 16:30. Leabu-
ruko plazan.

Lizartza. 17:30. Herriko plazan.

Orexa. 17:30. Herriko plazan.

Tolosa. 17:30. Zubi Berria, Nafar
Zubia eta Zumalakarregi.

Villabona/Zizukil. 17:00. Joxe
Arregi plaza.

TOLOSA GURE ZIRKUA

12:00 / 18:00. Gure Zirkua ikuskizun berria. San Esteban.

KONTZERTUA

12:00 / 16:00. *Golazen 7.0 kontzertua.* Irurako ikastolak antolatuta. 5- eta 14 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendurik. Leidorren.

IGANDEA URTARRILAK 10

ANOETA KONTZERTUA

18:30. SarraBete taldearen kontzertua, Mikelasagasti auditorioan.

TOLOSA GURE ZIRKUA

12:00 / 18:00. Gure Zirkua ikuskizun berria. San Esteban auzoan.

ASTELEHENA URTARRILAK 11

TOLOSA ELKARRETARATZEA

12:00. Pentsiodunen elkarretaratzea, udaletxe aurrean pentsio duinak eskatzeko.

OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da hona-
koa. Jakinaenez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.

ZINEMA



MI AMIGO PONY

Larunbata eta
igandea (16:45).
Gurea, Amasa-Villabona.



HASTA EL CIELO

Larunbata, igandea eta
astelehena (19:00).
Gurea, Amasa-Villabona.



COMO SOBREVIVIR

A UN MUNDO MATERIAL

Larunbata, igandea eta
astelehena (19:00).
Leidor, Tolosa.



ROCCA CAMBIA EL MUNDO

Igandea (16:00).
Leidor, Tolosa.

«Gai lokalak unibertsalak ere badira»



IÑIGO ARANBURU
(1971, DONOSTIA)

EITBren *Alardean* Itziar Ituñorekin batera protagonismoa elkarbanatzen duen aktore hau *Handia* filmean ezagutu genuen eta *Altsasu* tele-sailean ere izan du agerraldia. *Call Center* antzezlan-a aurkeztu zuen Bartzelonako La guapa teatre antzerki konpainiaren partaide izan zen Iñigo Aranburu, eta orain Hika teatroaren *Tonbola* kale antzerkian goza dezakegu bere lanaz Euskal Herrian barrena.



SAMBOU DIABY
(1999, ZUMAIA)

Oraindik kaleratu ez den bideoklip baten grabaketan ezagutu genuen elkar, aktorea izateaz gain dantzatzea ere gustatzen baitzaio. Antzerkian *Cabaret* musikala egin zuen eta kamera aurrean *Kartzela* web-seriean eta baita estreinatu berri den *Altsasu* tele-sailean ere ikusteko aukera dugu. COVID-19aren erruz Madrilgo La joven konpainiarekin egin beharreko *El primer acto* antzezlan-a estreinatu gabe geratu da.



Hodei Arrastoa

Gaurko *Zazpigarren ilarako* protagonistak Iñigo Aranburu eta Sambou Diaby aktoreak dira, eta eurekin batera tertulian aritu gara *Urte berri on, amona* filmaren inguruan.

Non ikasi zenuten antzeztan?

Iñigo Aranburu. Bartzelonara diseinatzaile grafiko ikasketak egitera joan nintzen eta han nengoela antzerki klase bakanak jasotzen hasi nintzen eskola txiki batean. Interesa piztu zitzaidanez, hogeita hamabi urterekin Col·legi del Teatren ikasketak egitea erabaki nuen.

Sambou Diaby. Donostiako TAE eskolan ikasi nuen bi urtez, ondoren Madrilgo Estudio V eskolan hasi nintzen kurtso intentsibo bat egiten eta horrez gain La joven konpainian aktore entrenamenduak egiten nituen. Bartzelonan *Afrika moment* formazioa ere egin berri dut, Espainia mailan bizi diren artista afrikarrei zuzendutakoa.

Zein izan zen zuen lehenengo proiektu profesionala?

S.D. Ni figurazio lanak egiten aritu nintzen *Go!azen* telesailean.

«Egoera hau mantentzen bada behintzat, badugu etorkizuna»
SAMBOU DIABY

I.A. ETBn urtebetez aritu nintzen hamazazpi urte nituela, *Laino guztien azpitik* programaren *Bai zera!* sekzioan. Hala ere, esan daiteke profesionalki hogeita hamabost urterekin hasi nintzela lanean. «Gauza berri bat ikasten hasteko beranduegi da» dioen jendeari nik, «Berandu? Zer da berandu?» esango nieke. **Agertoki gainean gertatutako anekdotarik izango duzue.**

I.A. Martxelo Rubiorekin Donostiako La Farandulan mikroteatro bat egiten ari nintzela barreak eman zizun eta antzezlanak geratu behar izan genuen. Emakume batek oso barre berezia zuen eta berandu eta lekuz kanpo entzuten ziren bere algarak. Publikoa ere gurekin barrezka aritu zen. Antzezlanarekin jarraitzen saiatu ginen eta nolabait amaitzea lortu genuen. Halakoak gertatzen direnean oso ederra da, ikusleek ere eskertzen dute.

S.D. *Cabaret* emanaldian bazen momentu bat ni plateara jaisten nintzena korrika, kamisetarik gabe eta urez bustita. Agertokira itzultzean aita jendartean ikusi nuen aurpegia esta-

...

liz, lotsatuta eta urduri. Ni deskontzentratu egin nintzen, ez nuelako publikoan espero eta ustekabearen ondorioz eskaileretan estropezu egin nuen.

I.A. Beste behin, *Call Center* antzezlanean mahai handi bat mugitu behar genuen argirik gabeko une batean oso azkar eta lankideei behin baino gehiagotan esan nien kontuz ibiltzeko, agertokitik erortzeko beldurra nuelako. Esan eta egin. Sekulako kolpea hartu nuen, baina hala ere ikusle batzuk ohartu ere ez ziren egin, berehala agertokira igo nintzelako antzezten jarraitzera.

Nola ikusten duzue euskal fikzioa?

S.D. Orain hasi da indartzen. *Altsasu*, *Alardea*, *Hondar ahoak*... gorputz gehiago hartzen hasi da. Proposamen berritzaileak egiten ari dira.

I.A. Ados nago. Euskal fikzioa momentu onean dagoela iruditzen zait, baina beldurra ematen dit oasi bat izateak, gerora egoera mantenduko ez dela pentsatzeak. Orain plataforma asko daude produkzio ezberdinak egiten, mundu mailan fikzio gehiago egiten ari da eta guri ere tokatuko zaigu. Kalitate aldetik ezin garela kexatu uste dut, ea horrela mantentzen dugun eta hobetzeko gai garen. Eta batez ere, orain *ETB*k egin duen bezala, zuzendari eta aktore gazteak hartzea gustatuko litzaidake, aurpegi berrieekin kalitate hori mantenduz.

Zer du aipagarria gure fikzioak?

S.D. Orain arte euskal gaiak erabili izan ohi dira. Euskal tradizioei buruz hitz egin izan dute.

I.A. Ulertzen dut hori, baina justu *Urte berri on*, *amona* filmean ez da gai euskaldunik lantzen, nahiz eta familia euskalduna izan. *Aupa Etxebeste* eta *Agur Etxebeste* ere hemengo jendeak egin ditu, baina gaiak orokorrak direla iruditzen zait. Hala ere, egia da Sambouk dioena. *Errementari*, *Amama*, *Handia*... denak dira oso euskaldunak. *Hondar ahoak* Ondarroan gertatzen da, baina kasu polizial orokor bati buruzko istorioa

«Euskal fikzioa momentu onean dago, baina beldurra ematen dit oasi bat izateak»

IÑIGO ARANBURU



azaltzen da. Nire ustez gai lokal bat urruti dagoen ikusle batek bere sentitzea da politena.

Euskalduna ez den norbaitek euskal kontakizun batekin enpatia izan dezake?

I.A. *Alardearekin* hala gertatu da. Itziar Ituñoren kanpoko jarraitzaile askok ikusi dute telesaila eta asko gustatu zaie emakumeek aurre egin behar izaten dieten arazo horiek leku guztietan daudelako. Gai lokalak unibertsalak ere badira.

Zein aktore euskaldunekin egin nahi duzue lan?

S.D. Nik Ramon Agirrerekin egingo nuke lana, beti pentsatu izan dut hala. Bere lan egiteko era asko gustatzen zait. *Go/azen*en ezagutu nuen eta nahiz eta kontaktu gehiegirik ez izan, atentzioa deitu izan dit. Eneko Sagardoyrekin ere gustatuko litzaidake.

I.A. Elena Irureta bere azken lanetan ikusgarri dago, asko gustatuko litzaidake lana berarekin egitea. Euskal Herrikan kanpo, Javier Camara esango nuke. Jendeak bere energia antzekoa dudala esan izan dit beti. Gaztetan asko miresten nuen, bere komedia egiteko modua ederra da. Tira, komedia egiteko Elena bera ere oso ona da... [Barreak].

Euskal gazteriak ba al du etorkizunik hemengo fikzioan?

S.D. Orain da momentua, gazteentzako aukera interesgarriak ari dira ateratzen. Inñigok esan duen bezala, egoera hau mantentzen bada behintzat badugu etorkizuna.

I.A. Gaur egun, ez soilik Euskal Herrian, gazteentzat aukera pila bat dago. Beti esaten da berrogeita hamar urtetik gorako emakumeek arazoak izan ohi dituztela aktore lanak egiteko, ba gazteekin kontrakoa gertatzen da. Nik gazte jendea gutxi ezagutzen nuen, baina *Altsasun* harrituta geratu naiz dagoen mailarekin. Hiru egun soilik aritu nintzen grabatzen, baina nahikoa izan zen lanerako zegoen giro ona sumatzeko, eta noski, giro hori gazteek sortzen zuten. Zaharrek bezala hitz egiten dut... [Barreak].

Oso ondo pasatzen duzu horrelako tokietan lanean, baina argi geratzen zaizu beste jenerazio batekoa zarela.

MOTZEAN

**Pelikula bat?**

I.A. Hanekeren *Amor*. Gainera, Ramon Agirre agertzen da!

S.D. *En busca de la felicidad* edo *Burlesque*.

Telesail bat?

I.A. *Years and years*.

S.D. *El príncipe de Bel Air*.

Genero bat?

I.A. Denbora bidaiak dauden zientzia fikziozko filmak gustatzen zaizkit.

S.D. Thriller eta drama.

Aktore bat?

I.A. Eduard Fernandez.

S.D. Will Smith.

Pertsonaia bat?

I.A. Nik egiteko bada, komedia batean pertsonaia patetiko bat.

S.D. *Bad boys* filmeko poliziak.

‘Urte berri on, amona’

pelikulaz tertulia, Iñigo Aranburu eta Sambou Diabyrekin.

Hodei Arrastoa

Iñigo Aranburu eta Sambou Diaby aktoreekin batera, denbora eta ohituren igarotzea, zaintza lana eta gure nagusien ongizatea pantaila handira eraman zuen filmaren azterketa laburra dator jarraian, tertulia gisara.

S.D. Pelikula hau ikusi dudanez lehen aldia da.

I.A. Niretzat ere bai, elkarriketa hau egitea aitzakia polita izan da.

Nik aspaldi ikusi nuen, baina ez nekien amonaren papera egiten duen aktorea katalana zela, Montserrat Carulla.

I.A. Nik lehenagotik ezagutzen nuen telebista katalanean ikusita. Arraroa izan da hori jakinda euskalduntzat jotzea, baina esan beharra dago harrituta gertzekoa dela euskaraz hitz egiten duenean, oso ondo egiten du. Duela gutxi hil da gainera...

Kontxu Odriozola bera ere 2016an galdu genuen. Montserrat Carullaren pertsonaiak, ordea, ez du hil nahi.

I.A. Hala da bai. Esan beharra daukat gaiak asko ukitu nauela, ama aurten hil baitzait. Bartzelonatik duela sei urte, besteak beste, bere azken urteak berarekin pasatzeko itzuli nintzen. Ulertzen dut filmean agertzen den amona gaiztoa dela-eta komedia puntu horrekin edozer gauza egin dezakezula, baina aldi berean gure helduak nola zaintzen ditugun pentsarazi dit. Orokorrean gizarteak errespetu gutxiarekin tratatzen ditu eta ez diegu ia eskertzen gugatik egin duten guztia. Horrek asko hunkitu ninduen.

«Komedia bat da, baina baditu drama, suspensea eta akzioa ere»

IÑIGO ARANBURU

S.D. Amona horrek familiarengan duen eraginak atentzioa deitu dit niri. Nagore Aranbururen eta Josean Bengoetxearen pertsonaien arteko erlazioa okertzen doa bere erruz. Iñigok esan bezala, komedia bat izateak asko laguntzen du amonaren gaiztoasunari mamia ateratzeko. Azken finean, hil nahi ez duen pertsona bat da eta besteek hori ez dute ulertzen.

I.A. Emakume horrek lortu nahi duena atentzioa deitzea eta maitatua izatea da. Gero hori Kontxu Odriozolaren pertsonaiari ere gertatzen zaio, baztertua edo ahaztua ez izateko.

Amak amonaren rola hartzen du.

I.A. Amona horren gaiztoa izateak terrore puntu bat ematen dio. Komedia bat da, baina baditu drama, suspensea eta akzioa ere.

Josean Bengoetxearen pertsonaia





«Hil nahi ez duen
pertsona bat da
eta bestee hori
ez dute ulertzen»

SAMBOU DIABY

**film guztian zehar da-
bil basurde baten atze-
tik. Beranduago, haren
semeak ehizatuko du.**

I.A. Paralelismo bat
dago basurdearen eta
amonaren artean, nik

uste. Semeak basurdea ehizatzea metafora gisa uler
daiteke, semeak berak, bere arrebaren laguntzaz,
etxeko arazoarekin amaituko balu bezala. Kontuak
kontu, bakea ez da iristen familia horretara.

Castinga ondo egin dagoela iruditzen zait.

S.D. Lantalde polita da, bai.

I.A. Iñake Irastorzak egiten duen bizilagun kuxkuxero-
aren papera izugarri maite dut. *Aupa Etxebeste* eta
Agur Etxebeste filmetan ere bizilagun gisa agertzen
da. Aktore guztiak oso ondo daude, agertzen den
mutil txikia barne.

S.D. Mutil hori oso natural ageri da.



URTE BERRI ON, AMONA! (2011)

Zuzendaria.

Telmo Esnal.

Aktoreak.

Josean Bengoetxea

Nagore Aranburu

Montserrat Carulla

Kontxu Odriozola

Pedro Otaegi.

Ikusgai.

Filmin platforman.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro lasaia baina oso hotza. Zeruan hodeiak eta

ostarteak tartekatuko dira, hodeitza trinkoagoa izango delarik arratsaldean. Hala ere, ez da euririk espero. Haizeak ipar-ekialdetik bizi joko du eta tenperatura balio altuenak ez dira 4-5 gradutik pasako, ordu gehienetan hortik behera kokatuz.

LARUNBATA

Negu beteko giroa. Goizean zerua oso hodeitsu agertuko da baina giroa lasaia izango da. Egurditik aurrera ordea, barnealdetik hodeitza trinkoagoa sartu eta prezipitazioa iritsiko zaigu. Egiten duen guztia elurretan botako du, nahiz eta, ez den espero zentimetro asko pila-tzerik. Haizeak ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura balio altuenak ez dira 3-4 gradutik pasako.

IGANDEA

Negu giroarekin jarraituko dugu. Goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte giro estalia izango dugu eta oraindik elur pixka bat ere izango dugu. Prezipitazio ahu-la izango denez, elur zentimetro gutxi pilatuko da. Arratsaldean atertu eta giro lasaia geratuko zaigu. Haizeak iparraldetik joko du eta tenperatura balio altuenak ez dira 3-4 gradutik pasako.

ASTELEHENA

Giro lasaia. Goizean hodeitza handi xamarra izango da, baina ez da prezipitaziorik espero. Arratsaldean ostartetxo batzuk zabalduko dira eta giroa argixeagoa izango da. Ipar-haizearen eraginpeak jarraituko dugu eta tenperaturak oso hotza izaten jarraituko du, balio altuenak 4-5 gradutan errendituz.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus
San Esteban 20 Tolosa

**Argazkia bi egun lehenago
ekarri mesedez**



ZORIONAK, NAHIA!

Nahia Lopetegi Etxedona.

11 urte. Gaztelu.

Zorionak etxeko guztien partetik

URTARRILAK 10, IGANDEA

AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34.
943 69 11 30.

URTARRILAK 11, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO

FARMAZIA: TOLOSA.

LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.

FARMAZIAK

URTARRILAK 8, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.

URTARRILAK 9, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Rosalia Morant Barber.
Zabalarreta lorategiak, 1.
943 67 38 49.



**2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuak terraza
zabal eta eguzkitsuak ikuspegi paregabeak mendietara
zatoz eta erreserbatu zure gustuko pisua!**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

MERKEALDIA

hau da zure momentua



R.P.S. 91/20 I.L.G.

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multiopicas.com   

MULTIÓPTICAS